

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Oporretako ikasgaia

Goiz esnatu beharrak ez zion lasai lo egiten utzi. Iratzargailuak jo baino ordubete lehenago jaiki zen, di-da batean prestatu, motxilari azken ukituak eman eta ostatutik atera zen. Bost egun egin zituen Costa Ricako herri txiki hartan, eta lekuz aldatzeko gogoazuen.



Orduan ikasi zuen mundua ikusteko modurik onena

horixe dela askotan:

jarri eta ikusi,

besterik gabe



Autobus bakarra zegoen aukeratutako norabidean, goizeko zazpitan. Denboraz joateko gomendatu zioten, badaezpada ere. Egurrezko banku luzeska bat besterik ez zen geltokia, erdi apurtutako aterpe txiki batean, herriko azken etxeetatik berrehun bat metrora. Goizeko sei t'erdietarako hantxe zegoen bidaiaria, errepide bazterrean eserita, eguzkia mendi artetik nola ateratzen zen ikusten, itzaletan ezkutututako fantasma baten moduan.

Trafiko gutxi zebilen, auto edo furgonetaren bat tarteka, bizikleta bat orain, moto zaratatsuren bat gero. Autobusik ez, ordea. Goiza modu horretan galtzeak amorrazio handia eman zion. Egonezina gutxi ez, eta eguerditik aurrera eguzkia tonaka erortzen zela iruditu zitzaion.

Izan zuen lagunik geltokian: hiriburura zihoan irakaslea, kamioi baten zain egon zen nekazaria, saltzaile bat merkatura bidean... Leku gutxitan Costa Ricakoa bezain jende

abegitsua. Ez zuen desatsegina izan nahi albokoekin, baina kosta egin zitzaion disimulatzea, ahalik eta azkarren alde egin nahi zuen bide bazter madarikatu hartatik, eta kito.


Arratsaldeko bostetan herrira bueltatzea erabaki zuen. Motxila bizkarrean hartu eta burumakur egin zuen ostaturako bidea.

Gerora, errepide ertzean sosegatu ezinik eta umore txarrez pasatako eguna gailentzen da bidaiariaren oroitzapenetan. Huraxe da Costa Ricako gogorapenik indartsuena, hartaz pentsatzean sentitzen du bidaiari izatearen zirrara sakona. Egun hartan ez zuen sumendi edo hondartza zoragarririk ikusi, baina orduan sumatu zuen jendea hurbilen, orduko aurpegiak eta elkarriketak gogoratzen ditu gehien. Eta horrela, egonean, ustez alferrikakoak izan ziren ordu luzeetan ezagutu zuen ondoen Costa Rica, hilabeteen hara eta hona gelditu gabe ibiltzen baino gehiago, seguruenik. Orduan ikasi zuen mundua ikusteko modurik onena horixe dela askotan: jarri eta ikusi, besterik gabe.

John Lennonek zioen bezala, beste gauza batez pentsatzen gaudela gertatzen dena da bitzita. Momentuan ohartu ez bazen ere, errepide bazter triste hartan ikasgai aberasgarria hartu zuen bidaiariak. Eta konturatu zen horrelakoak egunero gertatzen direla. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ari gara. Lanbro eta langarra iristean, etxe-ko bazterrak arakatu

eta bakoitzak bere gustuko lekuan eman ditu puskak. Soziedadean paratu bazkaria berotu eta txirringularen lana zeharka ikusiz berdinu gara. Bazkalostekoaren ondoren, ohiko tertulia telebistak emandako etaparen zuzenekoaz ordezkatu dugu. Bihar inguratuko zaizkigu txirringulak gurea, karabana ofizialaren zaraten ugariak jende andana erakarriz hutsik izaten den parajera. Laranja kolorekoak, jada agertzen hasi dira tropatan nor garen zer garen aitortzeko asmoz. *Basques?* Komertzianteek irri-

Tourmaletetik

ño konplizeak darabiltza galderarekin batera, gure berri badutela erakutsi nahi baligute bezala. Aurten gure gehienek, telefono operatzailearen iragarkiaz *Spain* bat omen daramate soinean. Ez ditugu oraindik ikusi, salgai jarri elastikoetan ez dago holakorik. Sosa arrazoi bietan. Eta sosa ororen arrazoi nagusia dela onartua dugunez, txirringularen *Spain*, zaleek ordain, eta nagusia bikain. Beharrik gure adinean pasioa elkarrekiko egonaldiaz amatatzen dugula, gure izate propioaren erakusletzat dugun fundamentuan zutabetuz, *basquetzat* hartzen gaituztela baieztatu eta itzultzen gara *Spain*etik libre, turnadak ordainduta. ■